

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Frantzia kaleko 41.a irigarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak orotariko tasazio bidez desjabetzeko proiektuari

Hauxe erabaki zuen Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek 2016ko irailaren 23an egindako aparteko eta premiazko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Gasteizko Frantzia kaleko 41.a irigarri egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak orotariko tasazio bidez desjabetzeko proiektuari. Interesdunek administrazio-dosierrean dute eskuragarri proiektua.

2. Gasteizko Frantzia kaleko 41.eko etxejabeen elkarte aitortzea desjabetze honen onuradun.

3. Delako proiektua informazio publikora ateratzea, hilabeteko eperako, ALHAOn, iragarki taulan eta zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, interesaturik dagoen orok egokitzen dituen ohar eta erreklamazioak aurkezterik izan dezan.

4. Halaber, dosierrean ondasun edo eskubideen titular gisa agertzen direnei balioa zehazteko orriaren eta kalte-ordain orriaren berri hitzez hitz ematea, banan-banan, jakinarazte egunaren biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean alegazioak aurkezterik izan dezaten —balioa zehazteko orri horretan jasotzen dira aplika daitezkeen balioeste irizpideak—, eta orobat jakinaraztea onuraduntzat jotako erakundeari ere.

5. Hirigintza Saileko zinegotzi ordezkariari ahalmena ematea Udalaren izenean eta haren ordezkari beharrezko diren agiri publiko zein pribatuak izenpe ditzan.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 23an

Alkate lehendakaria

GORKA URTARAN AGIRRE

Nahitaez okupatu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda					
Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 7. artikuluan eta Nahitaezko Desjabetzearen Araudiko 16. artikuluan ezarritakoaren ildotik, honako zerrenda ematen da ezagutzera, zeinak Frantzia kaleko 41.a irisgarri egiteko okupatu beharrezkotzat jotzen diren ondasun eta eskubideak biltzen dituen, bai eta haien titularren adierazpena ere.					
Funtsa	Katas. erref.	Gaur egungo azalera (m ²)	Eragina (m ² eraiki)	Titularra	Beste titular batzuk
Behea eskuina	1272-0216-1-1-27 - Beheko solairu - Erdi-sotoa	218,07 23,60	24,02	M ^a Teresa Unanue Celaya eta Ignacio Gabilondo Araquistain M ^a Asunción Unanue Celaya M ^a Desamparados Pastor Martínez eta José M ^a Gabilondo Unanue	Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa